

NEKAZARITZA ZERBITZUA

KUTXABANK

Nekazaritza konturako arriskuaren adierazlea

1/6

Zenbaki hau produktuaren arriskuaren adierazlea da. 1/6 Zenbakiak arrisku txikiagoa adieratzen du, eta 6/6 zenbakiak, berriz, handiagoa.

Kutxabank Kreditu Erakundearen Gordailuak Bermatzeko Funtzari atxikita dago. Funtz hori urriaren 14ko 16/2011 Errege Dekretuan aurreikusita dago. Funtz horrek gaur egun gehienez 100.000 euro bermatzen ditu gordailugile bakoitzeko.

KUTXABANK NEKAZARITZA ZERBITZUA
Esperientzia. Segurtasuna. Konfiantza.

Zure ondoan | Eta **gehiago**,
behar baduzu.

Kutxabanken Nekazaritza Zerbitzua:

**Esperientzia,
segurtasuna eta
konfiantza.**



Beti zure ondoan.

Ezagutu gure **Nekazaritza Zerbitzua**, zer egiten dugun, nola aztertzen ditugun zure beharrak eta zer produktu eta zerbitzu eskaintzen ditugun intzen dizkizugun.

Ezagutu gaitzazu.

Nekazaritza Zerbitzuko bezero izanda, espezializatu baten laguntza izango duzu, eta beste arlo batzuetako **Kutxabanken** adituekin batera, zure ustiapena kudeatzeko erabakiak hartzen lagunduko dizute, **zerbitzu profesional eta orokor baten bidez**.

Nekazaritza Zerbitzuaren xedea: konponbideak bilatzeko zereginen gure bezeroekin elkarlanean aritzea.

Nola lagundu
zaitzakegun.





Nekazaritza kontua

Kutxabanken zure ustiapenaren eguneroko kudeaketarako tresnak eskaintzen dizkizugu.

Nekazaritza kontua:

- **Kontuak** ez dauka mantentze komisiorik.
- **SEPA** transferentziak komisiorik gabe 1 .
- **Txekeen negoziazioa** komisiorik gabe 2 .
- **Online Bankako kontratuaren mantentze** komisiorik gabe.
- **Txartelaren/stickerraren jaulkipen eta mantentze-lanen** komisiorik gabe (Visa Dual Profesional edo Visa Classic Enpresa txartel bat titular bakoitzeko).

UTB: %0.

Baldintzak:

- Autonomoen ordainagiriaren edo norbere konturako nekazaritzako erregimen bereziaren edo langileen gizarte-aseguruen helbideratzea.
- Kontuaren batez besteko hileko saldoa ≥ 2.000 €.
- On-line Bankuaren zerbitzua kontratatuta izatea, bai eta titular bakoitzaren sakelako telefonoaren zenbakia **informatuta izatea ere**.
- Kontu honi lotutako eta kontuko titularren jabetzakoak diren txartel guztien fakturazio garbia 100 eurokoa izan behar da hilean, edo 1.200 eurokoa aurreko 12 hilabeteetan, betiere kontuak VISA CLASSIC Enpresa edo VISA DUAL txartelak helbideratuta baditu.

1 Online Bankaren bidez kontutik bertatik egindako transferentzia arrunt bat.

2 Eurotan jaulkita eta finantza-erakunde nazional batean helbideratuta baldin badaude.

Zure konfiantzaren neurria.



Neurrirako finantzaketa

Kutxabankek landa-ingurunearen baldintza sozioekonomikoak hobetzeko lan egiten du.

NEURRIRAKO NEKAZARITZA-ARLOKO FINANTZA-KUDEAKETA

Nekazari eta abeltzain bakoitzaren diru-sarrerak eta ordainketak banan-banan aztertzen ditugu, hari gehien interesatzen zaion finantzaketa diseinatzeko.

KANPAINAKO MAILEGUAK

12 hilera arteko maileguak kanpainako ohiko gastuei aurre egiteko, epeak ustiapenaren beharretara egokituz.

KANPAINAKO KREDITU-KONTUA

Nekazaritza-jardueraren ziklo produktiboetan zure diruzaintza-beharrei aurre egin ahal izateko.

INBERTSIO MAILEGUA

Zure nekazaritza-ustiapenerako beharrezkoak diren edozein motatako inbertsioak finantzatzen ditugu (makinak, abereen erosketa, finken erosketa, ustiapenen eraldaketa eta hobekuntza...).

Inbertsioaren **% 100eraino**, berme pertsonalarekin edo hipoteka-bermearekin.

PAC LAGUNTZAK

PAC diru-laguntzen zenbatekoen kobrantza aurreratzen dugu.



Zurekin hazten gara.

LEASING

Aldizkako kuota batzuen truke ondasun produktibo bat erabili ahal izateko sistema da, eta kontratua amaitutakoan, ondasuna **erosteko aukera izango duzu**.

FACTORING

Zure salmentek sortutako fakturak kobratzeko lanez arduratuko gara.

BESTE ZERBITZU BATZUK

ORDAINKETEN KUDEAKETA INTEGRALA

- Hornitzaileei ordainduko zaizkien fakturen kudeaketa egiteko aukera emango dizun **hornitzaileentzako ordainketa**.
- Kreditu-lerro bat edukitzeko aukera emango dizu **nekazaritza-arloko confirmingak**. Hari esker, hornitzaileek kontu horretara bidalitako fakturak finantzatu ahal izango dituzte.



NEKAZARITZA ZERBITZUA

KUTXABANK

Onenekin lan
egiten dugu.



Hitzarmenak

Lehenengo sektorearekin daukagun konpromisoan oinarrituta, **Kutxabankek** hainbat hitzarmen sinatzen ditu sektoreko erakunde eta kooperatiba garrantzitsuenekin, zure ustiapenaren garapenean laguntzeko eta finantzaketa-baldintza onenak eskaintzeko.

Eusko Jaurlaritz:

- ETE, Profesional eta Autonomoen finantzaketari laguntzeko programa, likidezia beharretarako.
- Ezohiko finantzaketa-lerroa, berme publikoarekin, likidezia eta inbertsio-beharretarako.
- Sendotu, inbertsio-beharretarako.

Elkarren Bermerako Sozietateak:

- Elkargi.
- Saeca.

Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa:

- Klima-aldaketaren aurkako borroka.
- Ondare naturalaren, biodibertsitatearen eta itsasoaren babesa.
- Ura.
- Landa-garapena.
- Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza arloetako baliabideak.
- Elikadura

NEKAZARITZA ZERBITZUA

KUTXABANK

Beti zure
ondoan.





Aseguruak

Zure traktorea eta nekazaritzako ibilgailuak **aseguratzen** dizkizugu, hobari interesgarriekin, bai eta gainerako ibilgailu pribatuak ere.

Gainera, zure **etxea, bizitza, osasuna...** aseguratzeko dizkizugu.

Orainaldi eta etorkizun lasaia Kutzabanekin.

* Traktorera eta nekazaritzako ibilgailuetarako aseguru Liberty Seguros-en produktu bat da; Kutzabank Etxe-aseguru Kutzabank Aseguru-etxearena da; eta Kutzabank Bizi-aseguru Kutzabank Vida y Pensiones-ena da. Kutzabankek bitartekari-lanak egiten ditu. Kutzabank Vida y Pensiones sozietatearen bankuko aseguruen operatzaile bakarra da Kutzabank, eta bere baimena dauka Kutzabank Aseguradora sozietatearekin eragiketarako. Bitartekarien Erregistro Administratibo Berezian erregistratuta dago, C0654A95653077 zenbakiarekin. Azken horrek eta Liberty Segurosek sinaturiko banaketa-hitzarmenaren arabera, traktorera eta nekazaritzako ibilgailuetarako aseguruaren bitartekaria da.

Zerbitzuak

KUTXABANK NET

On-line bankarekin zure **banku-eragiketak** egunean egin ditzakezu, **bulegora joan beharrik gabe**. Konektatu eta eragiketarako egiteko askatasun osoa eskaintzen dizula ikusiko duzu; edonondik eta edonoiz. Eta, gainera, **Kutzabankek** eskaintzen duen **isilpekotasun, segurtasun eta berme** guztiarekin.

ORDAINBIDEAK

Zure ordainketak errazteko, **kreditu eta zordunketa-txartelen** sorta zabala eskaintzen dizugu, bai eta **hobaridun gasolioaren txartela** ere, erregaia baimendutako gasolindegietan ordaindu nahi dutenentzat, modu eroso, seguru eta errazean.

Horrekin batera, Kutzabankek kreditu-txartelekin **finantzaketa** eskuratzeko aukera izango duzu, **baldintzarik onenetan**.



NEKAZARITZA ZERBITZUA



KUTXABANK



**ERRAZ
HURBIL
ORAIN**

www.kutxabanknekazaritza.eus